**EBAZPENA, LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUKO PRESTAZIOEN ETA INKLUSIOAREN ZUZENDARIARENA; HONEN BIDEZ, LANAGRO SERVICIOS SL ENPRESARI LANERATZEKO ENPRESAREN KALIFIKAZIOA AITORTU ZAIO ETA, HORTAZ, EUSKADIKO LANERATZEKO ENPRESEN ERROLDAN SARTU DA.**

**RESOLUCIÓN DE LA DIRECTORA DE PRESTACIONES E INCLUSIÓN DE LANBIDE-SERVICIO VASCO DE EMPLEO, POR LA QUE SE PROCEDE A LA CALIFICACIÓN DE LA EMPRESA LANAGRO SERVICIOS SL COMO EMPRESA DE INSERCIÓN Y A SU INSCRIPCIÓN EN EL REGISTRO DE EMPRESAS DE INSERCIÓN DE EUSKADI.**

**LANAGRO SERVICIOS SL** enpresak (IFZ: B72676075; egoitzaren helbidea: LAS CUEVAS 2, 01322 MOREDA DE ÁLAVA, ARABA) laneratzerako enpresaren kalifikazioa eskuratzeko eskaera bidali zuen, laneratzeko enpresen kalifikazioa arautu eta horietan sartzeko prozedura eta erregistroa ezarri dituen azaroaren 11ko 182/2008 Dekretuan xedatutakoarekin bat. Hala, bada, Ebazpena eman da, oinarri hauek aintzat hartuta:

Vista la solicitud presentada por la empresa **LANAGRO SERVICIOS SL** con N.I.F B72676075 y domiciliada en LAS CUEVAS 2, 01322 MOREDA DE ÁLAVA (ARABA), en relación a su calificación como empresa de inserción según lo dispuesto en el Decreto 182/2008 de 11 de noviembre, por el que se regula la calificación de empresas de inserción, se establece el procedimiento de acceso a las mismas y su registro, se dicta la presente Resolución sobre la base de los siguientes:

## AURREKARIAK

**LEHENA.-** 2022/12/21, **LANAGRO SERVICIOS SL** enpresak eskaera aurkeztu zuen, laneratzeko enpresaren kalifikazioa eskuratzeko eta dagokion erregistroan sartzeko, betiere, laneratzeko enpresen kalifikazioa arautu eta horietan sartzeko prozedura eta erregistroa ezarri dituen azaroaren 11ko 182/2008 Dekretuan xedatutakoarekin bat.

**BIGARRENA.-** Lanbideko zerbitzu teknikoek espedientea aztertu dute, kalifikazio-eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentazio guztia barne.

## ANTECEDENTES DE HECHO

**PRIMERO.-** El 21/12/2022 la empresa **LANAGRO SERVICIOS SL** presentó solicitud para su calificación y registro como Empresa de Inserción, al amparo del Decreto 182/2008 de 11 de noviembre, por el que se regula la calificación de empresas de inserción, se establece el procedimiento de acceso a las mismas y su registro.

**SEGUNDO.-** El expediente ha sido estudiado por los servicios técnicos de Lanbide, habiendo sido examinada toda la documentación aportada con la solicitud de calificación.

Este documento es una representación del original disponible a través del **localizador** y la **sede electrónica** indicados al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizkoaren irudikapen bat da, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** eta **egoitza elektronikoaren** bidez eskuragarri dagoena.

## ZUZENBIDE OINARRIAK

**LEHENA:** Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Prestazioen eta Inklusioaren zuzendaria da ebazpen hau emateko organo eskuduna; horrela xedatzen baita maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuan, zeinaren bidez Lanbideren Estatutuak onartzen diren, 12 eta 15 bis artikuluetan, Lanbideko Estatutuak bigarren aldiz aldatzen dituen abuztuaren 30eko 98/2022 Dekretuak emandako idazketaren arabera.

**BIGARRENA:** Aurkeztutako eskabidea eta hari atxikitako dokumentazioa aztertuta, ikusi da aipatutako enpresak laneratzeko enpresaren kalifikazioa eskuratzeko baldintzak betetzen dituela, azaroaren 11ko 182/2008 Dekretuan ezarritakoarekin bat.

Aipatutako xedapenak eta oro har aplikatzekoak diren bestelako xedapenak **AZTERTUTA** , eta aitortuta ditudan eskumenak baliatuta

## HONAKO HAU EBAZTEN DUT

**LEHENA.- LANAGRO SERVICIOS SL** -ri laneratzeko enpresaren kalifikazioa ematea. Enpresa horren IFZ B72676075 da, eta haren egoitzaren helbidea honako hau: LAS CUEVAS 2, 01322 MOREDA DE ÁLAVA (ARABA).

**BIGARRENA.-** Kalifikazio hori Euskadiko Laneratzeko Enpresen Erroldan sartzea, honako inskripzio-zenbaki hau duela: **EI-2023/076/1**.

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

**PRIMERO:** La Directora de Prestaciones e Inclusión de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo es el órgano competente para dictar la presente Resolución, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 12 y 15 bis de los Estatutos de Lanbide, aprobados por Decreto 82/2012, de 22 de mayo, según redacción dada por el Decreto 98/2022, de 30 de agosto, de segunda modificación de los Estatutos de Lanbide.

**SEGUNDO:** Que examinado el contenido de la solicitud presentada y de la documentación que a ella se adjunta, se comprueba que la referida empresa cumple los requisitos exigidos por el Decreto182/2008, de 11 de noviembre, para obtener la calificación de empresa de inserción.

**VISTOS** los preceptos citados y demás de general aplicación y en virtud de las atribuciones que me han sido conferidas

## RESUELVO

**PRIMERO.-** Calificar como Empresa de Inserción a **LANAGRO SERVICIOS SL** con N.I.F B72676075, domiciliada en LAS CUEVAS 2, 01322 MOREDA DE ÁLAVA (ARABA).

**SEGUNDO.-** Inscribir dicha calificación en el Registro de Empresas de Inserción de Euskadi asignándole como nº de inscripción: **EI-2023/076/1.**

**HIRUGARRENA.-** Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin agintzea, azaroaren 11ko 182/2008 Dekretuko 9.6 artikuluan xedatutakoari jarraituz

**TERCERO.-** Ordenar la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco de esta Resolución, en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 9.6 del Decreto 182/2008, de 11 de noviembre.

Halaber, jakinarazten dugu laneratzeko enpresaren kalifikazioari eusteko, 182/2008 Dekretuko 4.2 artikuluan ezarritako baldintzak betetzen jarraitu behar duela, eta Dekretu bereko 10. artikuluan ezarritako betekizun hauei ere men egin behar diela:

1. Urtero, aurkeztea jardueren memoria eta garatutako esku-hartzeen ebaluazioa.
2. Urtero, aurkeztea urteko kontuak eta zergaldi bakoitzaren itxierari dagokion kudeaketa-txostena.
3. Urtero, auditoretza sozial bat egitea eta balantze sozial bat aurkeztea.
4. Urtero, jardueren plana eta aurreikusitako aurrekontua aurkeztea.
5. Kalifikazioan ondorioak dituzten estatutu-aldaketen ziurtagiriak aurkeztea, 10 eguneko epean, bere forma juridikoari dagokion Erregistroan inskribatzen denetik zenbatzen hasita.
6. Plantillan egindako aldaketa kuantitatiboak eta kualitatiboak jakinaraztea, eta baita laneratze-prozesuetan dituzten ondorioak ere, aldaketak egiten diren unean.

Así mismo, se le comunica que para seguir manteniendo la calificación de empresa de inserción debe seguir cumpliendo todos los requisitos previstos en el artículo 4.2 del Decreto 182/2008, así como cumplir con las siguientes obligaciones establecidas en el artículo 10 del mismo Decreto:

1. Presentar la memoria de actividades y la evaluación de las intervenciones desarrolladas con carácter anual.
2. Presentar las cuentas anuales y el informe de gestión correspondiente al cierre de cada ejercicio con carácter anual.
3. Realizar una auditoria social y presentar un balance social con carácter anual.
4. Presentar el plan de actividades y el presupuesto estimativo con carácter anual.
5. Presentar la documentación acreditativa de las modificaciones estatutarias que afecten a su calificación, en un plazo de 10 días a contar desde su inscripción en el Registro correspondiente a su forma jurídica.
6. Comunicar, en el momento en que se produzcan, las modificaciones cuantitativas y cualitativas en la plantilla del personal y la forma en la que, en su caso, afecten a los procesos de inserción.

Lanbide

7. Lankidetza egokia ematea Enplegu Zerbitzu Publikoei eta laneratze-prozesuan parte hartzen duten Oinarrizko Gizarte Zerbitzuei, dagokion jarraipena egin ahal izateko.

7. Prestar la colaboración adecuada a los Servicios Públicos de Empleo dependientes de la Comunidad Autónoma del País Vasco así como a los Servicios Sociales de Base que participen en el proceso de inserción, a fin de que pueda realizarse el oportuno seguimiento.

JAKINARAZ BEKIO ebazpen hau interesdunari, eta berariaz adierazi ez diola amaiera ematen administrazio-bideari eta, haren aurka, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango duela Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiari hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

NOTIFÍQUESE la presente Resolución a la parte interesada, haciéndole saber que la misma no pone fin a la vía administrativa y que contra ella se podrá interponer recurso de alzada ante la Directora General de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente a su notificación.

**SARA BUESA RODRIGUEZ**
**PRESTAZIOEN ETA INKLUSIOAREN ZUZENDARIA**
**DIRECTORA DE PRESTACIONES E INCLUSIÓN**